

ZER AFALDUKO DUGU?



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Londres, 1851. *What shall we have for dinner?* (Zer afalduko dugu?) izenburuko liburua argitaratu zen. Lady Maria Cuttlerbuck-ek sinatutako lanak afaltzeko 42 menu jasotzen zituen, askotarikoak, bi lagunentzako afari xumeetatik hasi eta hamazortzi afaltzarrentzako oturuntza oparoetaraino. Londres viktoriarrean gastronomiarekiko interesa gora ari zen, atzerriko sukaldaritza lantzen zuten jatetxe kopurua bezala. Errezeta bilduma hura *best seller* bihurtu zen berehala. Liburuaren jatorrizko ediziorik ez da gorde eta, horregatik, ez dakigu zehazki urte hartako zein garaitan argitaratu zen. Baina urrirako agortua zegoen, bigarren edizioa orduan argitaratu baitzen. Gutxienez bost berrargitalpen egin zituzten 1860. urte bitartean.

Gerora jakin zen Lady Maria Cuttlerbuck izengoitia zela –frantziar komedia bateko pertsonaia baten izena da– eta liburua Charles Dickens idazle ospetsuaren Devonshire Terraceko etxean idatzi zela. Adituek uste dute hitzaurrea nobelagileak berak idatzi zuela, baina zalantzarik ez dute edukia Catherine Dickens emazteak idatzi zuela (jaiotzez Catherine Hogarth, 1815-1879).

Eskozian jaioa, 1836an ezkondu zen Charles Dickensekin eta hamar seme-alaba izan zituzten. Badirudi,



Ezkerrean, dickenstarren sukalde, Londresko Dickens Museum-en ikusgai dagoena. Alboan, Charles Dickens emazte Catherineen erretratua, Daniel Maclisek 1847an egina. Handik lau urtera arrakasta izugarria izango zuen errezeta liburua kaleratu zuen Catherin Dickensek.



ordea, liburuaren salmentek gora egingen zuten bitartean, senar-emazteen arteko harremana gainbehera zetorrela. Senarraren esanetan, Catherine ama eta etxeokandrea ezgauza zen eta hainbeste haur izatea leporatzen zion, horrek buruhauste ekonomikoak eragin zizkiolako. Buruko arazoak zituela ere esan zuen. 1858ko ekainean banandu ziren eta Catherinek etxea eta zaharrena ez beste seme-alaba guztiak utzi behar izan zituen. Eta hala ere, senarrarekiko leialtasuna agertu zuen hil arte.

Azken urteotan Catherine Dickens hizpide duten hainbat lan kaleratu dira. *What shall we have for dinner?* berrargitaratu zuten 2005ean, hari buruzko bi ikerlan argitaratu dira, BBCk dokumental bat ekoiztu zuen 2011n... Eta guztiak erabili dute sukaldaritzari buruzko liburua egileak senarrak marraztutako gaitasun ezaren karikaturarekin zerikusirik ez duela ondorioztatzeko. Proposatutako afari bilduma horren atzean emakume praktiko, langile eta eraginkorra dago, eskuzabala, besteen nahiak asetzera emana, obedientea. Emakume viktoriar eredugarria, alegia. ■



NASA

18,5 milioi dolarreko marratxo

1962ko uztailaren 22an *Mariner 1* espazio-ontzia aineratu zen. Garaiko 18,5 milioi dolarreko (egungo 500-600 milioi) proiektuak Artizarra zuen jomuga, baina hegaldiak 294,5 segundo besterik ez zuen iraun. NASAko arduradunek ontzia suntsitzea erabaki zuten, suziriak ez zielako behar bezala erantzuten lurreko sistemen aginduei.

Porrotaren azalpenak anbiguoak eta maiz kontraesankorrak izan arren, 1962ko, 1963ko eta 1985eko hiru txosten bat datoz programazio datuetan akats txiki baten ondorio izan zela adieraztean: marratxo bat falta zen. Arthur C. Clarke zientzia fikzioko idazle ezagunak "historiako marratxorik garestiena" zela esan zuen. ■